




**EMAKUNDEREN  
BERDINTASUN SARIA**

**ALARDEZALEAK ELKARTEA  
TRADIZIOAK EZ  
DU SEXURIK, ETA  
BIZIRIK IRAUTEN  
BADU DENBORA  
BERRIETARA  
EGOKITZEN  
DELAKO DA**

KARLOS CORBELLA

Ale honetan ere...

-  **IRITZIA:** Beharrezko feminismoa: Aldaketak eta erreformak edo kontrarreforma?
-  **ELKARRIZKETA:** Carme Valls-Llobet, Endokrinologoa eta Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea
-  **JARDUNALDIA:** 2012ko berdintasunerako foroak ekonomia-arloa hartu du ardatz nagusitzat



ARANTZA CAMPOS  
EHUKO ZUZENBIDE FAKULTADEKO IRAKASLEA

# Beharrezko feminismoa: Aldaketak eta erreformak edo kontrarreforma?

**B**erdintasuna lortzeko bidea luzea genuela bagenekien, baita aldatu edota garatu behar ziren legeak zeudela, eta beste asko oraindik egiteko. Horietan geunden berriro ere errealtate gordinarekin aurkitu garenean. Ez genuen uste, urte askotan hainbeste kostatu zaigun lortutako gutxi hori, hain azkar eta laster desegingo zenik.

Erreformatik direla diote, gure onerako egindako erreformak, baina bat baino gehiagok, bere proposamenak osoko zuzenketa direla uste dugu. Kontratu sozial berri baten garaia iritsia zela pentsatzen genuenean, demokrazia paritarioarena, kontrarreforma handi batekin aurkitzen gara, erreforma batekin baino. Ez dut alarmista izan nahi, errealista baizik.

Eskuinak kontrarreforma bat aurrera eramaten lehenengo aldia ez dela egia da, baina gure galdera honakoa da: noraino iritsiko da? ze urtera arte egingo du atzera? Eskuineko kontua izango balitz soilik, lasai egon gintezke, baina dirudienez, boterean dagoen ezkerria ere, ez da atzean geratzen. Gure gizartea eta bere ordezkariak, berdintasun erakunde ezberdinen suntsipena isilean ikusten ari dira, baita espazio eta baliabideen murrizpen edo desagertze sistematikoa, ezer egin gabe...emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeko, mugimendu feministaren protesta indartsua nekez entzuten uzten gaituzte. Momentu kritikoa gaude, feminismo guztiek (politikoa, soziala, akademikoa, instituzionala...) hurrengo galdera egin beharko genuke; zer da emakumeek galtzen ari garen eskubide horiek ez galtzeko egin beharrekoa?

Ikusi dezagun zer gertatzen ari den emakumezkoen eskubide politikoeekin eta berdintasun legeak barne zituzten aurrerapen horiekin, erakunde politikoetan bere presentzia handitzeko asmoarekin eginak. Zenbatekoa oso etsigarria da! Parekotasuna ez da errealtate bat, are okerrago, ordezkari paritarioa lortzea beste garai bateko garrantzi gabeko apeta zela dirudi. Nire buruari egiten diodan galdera honakoa da: nola egongo dira emakumezkoen interesak



agenda politikoan emakumeak ez bagaude erabakiak hartzen diren lekuan? Zeintzuk dira emakumezkoen eskubideak murrizten dituen kontrarreforma legeilearen buru?

## 1985. URTERAINO ATZERA

Sexu eta ugalketa eskubideei arreta jartzen badiegu, egoera okerragoa da oraindik.

Gobernu berriak, kontrarreforma legeilearen ekimen berriak aurkezten ez du denbora galdu. Justizia ministro berriak, abortuaren delituaren erreforma azaldu du aurreko gobernuak onartutako LO 2/2010aren aurka, bere alderdiak sustatu zuen konstituzioarekin bat ez zetorren errekurtsioari buruz Auzitegi Konstituzionalak duen erabakiari itxoin gabe.

Feminismo guztiek (politikoa, soziala, akademikoa, instituzionala...) hurrengo galdera egin beharko genuke; zer da emakumeek galtzen ari garen eskubide horiek ez galtzeko egin beharrekoa?



Ministroak, 1985.urteko egoerara bueltatu nahi du, bere haurdunaldia aurrera ez eramatea erabaki duten emakumeak kriminal gisa tratatu nahi ditu, hala nola, laguntzen dituzten profesionalak. 1985. urteko egoerara bueltatzea suposatzen duen kontrarreformak, ministroak azaltzen duen moduan, hipokrisiaz aparte, ama ez izateko askatasunaren aurkako erasorik nabarmenena suposatzen du.

Zer da ministroak nahi duena? Ez dut uste emakumeen ongia, ezta bere eskubideen defentsa, kontrarreforma-ekimen honekin, Eliza Katolikoa bezalako erakunde antidemokratiko eta sexistaren sektorerik integristenak asetzela bere asmoa susmatzen dut, emakumeen presentzia bere organo guztietan eta irudikapeneko eta erabakiko postuetan debekatzen duena.

Bestalde, eta bortxakeria gabeko bizitza bizi izatera emakumeek duten eskubideari dagokionez, Estatuak eta Gobernuak bere lehentasunen artean egotea lortzen ari ginen gaur egun. Gai honi dagokionez, ez naiz emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren aurrean sentibiltate gutxi duten beste autonomia erkidegoko gobernuek aurrera eramaten ari diren giza –baliabide eta materialeko murrizketa larriaz ari, eta aipaturiko eskubidearen berezko

existentzia zalantzan jartzen dituztenak.

### GUZTIA EMAKUMEENTZAT BAINA EMAKUMEA GABE

Oraingo honetan, gure autonomia erkidegoan gertatu denak irakatsi duguna eta ikasi behar dugunaz ari naiz. Eusko Jaurlaritzak onartu eta gero bertan behera utzi zuen Emakumeen Kontrako Indarkeria Biktimen Arreta eta Berreskuratze Integralari buruzko Lege proiektuaz (1) ari naiz. Gobernuak ez lirateke hiritarren parte-hartze politikoa mugatzen duten ereduengatik soilik zuzendu behar, guztia emakumeentzat baina emakumea gabe bezalako arauekin. Bizitza demokratikoan lau urtero hautestontzietan parte hartuz baino era gehiagotan parte hartzea da hiritarren, eta batez ere, emakumezkoen eskaria. Honek zera irakatsi digu, legearen aldetik emakumeen kontrako indarkeriaren tratamendu egokiak eta bortxakeria matxista gabe bizitzeko eskubideak, urtez honetan lanean ibili diren emakumezkoen antolakundeak barne dituzten gizarteko alderdi askoko eta Mugimendu Feministaren arteko eztabaida publiko, zalu eta parte-hartzailea beharrezkoa dela, emakumeentzako hain garrantzitsua izango den lege horretan zer esaterik badutela.

Bukatzeko, lan-kontrarreforma berria eta gizarte zerbitzuetako aurrekontuetan eman diren murrizketak, emakumezko eta gizonezkoen arteko desberdintasuna sakontzeaz aparte, amatasun libre eta arduratsu baten emakumezkoen eskubidea zalantzan jartzen du, hala nola, ordaindutako lanpostu baterako sartzeko aukera-berdintasuna. Langabezia handitzen bada, soldatak jaisten badira, zerbitzu publikoak desagertzen badira, familiak ez badira babesten, nor ausartuko da umeak izatera? nork egingo du ordaindu gabe dagoen beharrezko lan hori? Ardurdun politiko kontserbadore batzuek "norabide ona" nabarmendu dute, baina honek ez du finkatzen emakumezkoen lan eta familia arteko bizitzaren kontziliazioa, ezta gizon eta emakumezkoen elkarteko ardurapena, seme-alaben zainketari dagokionez. "Norabide ona" emakumezkoen etxerako itzulera dela adierazi dute zuzenean, umeak zaindu ditzaten. Hori bai, merkatuetarako eta estatuetarako 0 kostuarekin. Kostu politikoren eta sozialen bat gutxienez izatea itxaron dezagun.

★

Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistaren Prebentzioari eta Biktima horien Arreta eta Berreskuratze Integralari buruzko Lege Aurreproiektua bezala jarri zen lege proiektu hau jendaurrean, 2011ko urrian.



Endokrinologiako espezialista, Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea, Análisi eta Osasun Programen Zentroa GKE-ko kide da, osasunean eta osasun-zerbitzuetan ematen diren genero-desberdintasunak ikertzea eta agerian uztea, eta emakumeei bere bizi-kalitatea hobetzeko informazioa eta baliabideak ematea helburu duena. Medikuntza-dibulgazioko zenbait liburuen egilea da. Maiatzaren 28an, Emakundek Gasteizen antolatu duen Genero eta Lan-Osasun foroan parte hartuko du.

TESTUA: C. RUIZ DE GARIBAY - ARGAZKIAK: K. CORBELLA

## «Emakumeek gizonek baino bizitza luzeagoa dute baina ez bizi-kalitate handiagoa»

**B**artzelonan Medikuntza ikasten ari zenean, Fakultatean gizonaren gorputza eta emakumearena berdinak zirela mantentzen zen, baina ikasteko orduan, beti gizonaren gorputza erabiltzen zen adibide bezala. Horrela, emakumeak zientziarentzako ikusezinak garelako egiaztatu zuen, askotan salatu eta bere “Mujeres invisibles” liburuan adierazi duen bezala. Gaur egungo gizar-

teak, faktore biologiko, psikiko eta sozialak emakumeen osasunean eragina dutela onartzen du, baina duela urte gutxi, arreta terapeutiko ezberdina merezi zuten patologia eta arrisku faktoreetaz ez da ohartu medikuntza.

“Emakume gaixoa, betiko emakumea” topikoa, noizbait balio izan al dio medikuntzari emakumezkoen zenbait gaitz serio ez hartze-

ko dota psikologikoak zirela kontsideratzeko?

Topiko hau, beste batzuekin batera, emakumei buruzko begirada patriarkalari dagokio, egin, esan edo sentitzen dutenari garrantzi gutxiago eman zaiolako. Emakumeek gizonek baino bizitza luzeagoa dute baina ez bizi-kalitate handiagoa. Bizitza-luzera hau eta aurkezten duten patologietako gehiengoa izaera kronikoa izateak,



«Substantzia kimikoekin ibiltzeak edo estresak, bai burukoa bai fisikoa, disruptore endokrino bezala funtzionatzen dute gizon eta emakumeen gorputzean, baina azken hauek kalteberagoak dira, hilekoaren erritmoa aldatzen zaielako eta fibromialgia, sentsibilitate kimiko anizkuna eta bularreko minbizia bezalako gaixotasunetarako arrisku faktore direlako»

gutxiestera eraman du emakumearen ondoeza, bere sintomak antsiolitiko eta depresioaren kontrako sendagaiekin tratatzea. Ez da psikologizazio bat, emakumeen gaitzak psikiatrikotan bihurtu izatea baizik.

**Osasuneko ikuspegi tradizionala aldatzeko genero ikuspuntua sartzea asko kostatzen ari da?**

Munduko herrialde askotan, Espainia barne, biltzarrak antolatu eta sareak sortu ziren emakumeen osasun arazoak ikusteko duela 20 urte bakarrik. Harrezkero, Estatu guztiko osasun profesionalak elkarrekin harremanetan gaude REDCAPS-en bitartez. Duela 15 urte ari gara Emakunderekin lankidetzan, emakumeen institutueta lehenengotakoa, duela urte batzuk gonbidatu ninduen genero ikuspuntu batekin lan egingo zuten zenbait osasun-profesionalei trebakuntza ikastaroak emateko. Emakumearen Osasuneko Behatokiaren ondoko sorrerak asko lagundu du zeregin hauetan, zoritxarrez joan den urtean zendutako bere zuzendari bikainarekin, Concha Colomer doktoarekin.

**Emakumeen etxetik kanpoko lan hastearekin antzeman al dira gizonenekoak kontsideratu diren patologiak, hala nola estresa edo miokardioko infartuak?**

Bai, lan-egoerek osasun-arazo larriak eragin ditzaketela ikusi dugu, emakumeen infarturako ustezko babesa errespetatzen ez dituztenak. Duela hogeitau urte jada egiaztatu zen Volvo enpresako muntaketa kateetan emakumeek ere miokardioko infartuak pairatu zitzaizketela gizonak bezala. Substantzia kimikoekin ibiltzeak edo estresak, bai burukoa bai fisikoa, disruptore endokrino bezala funtzionatzen dute gizon eta emakumeen gorputzean, baina azken hauek

kalteberagoak dira, hilekoaren erritmoa aldatzen zaielako eta fibromialgia, sentsibilitate kimiko anizkuna eta bularreko minbizia bezalako gaixotasunetarako arrisku faktore direlako.

**Ordaindu gabeko lanak, lanaldi bikoitzak edo zaintzaile lanak nola eragiten du emakumeen osasunean?**

Estres fisikoa eta mentala areagotzeaz gain, muskulu eta artikulazioetako mina eta arazoak ere areagotu egiten dira. Bereziki muskulu trapezioaren kontraktura agertzen da, jendeak zerbikaletako minarekin nahasten duena. Pertonekin kontaktua duten profesionalak (irakasleek, erizainek, medikuek etabar.) estres mentala izaten dute, eta ondorioz hastapenean hasten den mina lepoko mina izan ohi da. Lanaldiak amaigabeak direnean, guruin suprarenaleko hormonek beren eguneroko erritmoa (zirkardianoa) aldatzen dute, eta ondorioz loaren erritmoa eta kalitatea aldatzen dira, eta gaueko atsedenaldiak ez du behar bezala errekupeartzten uzten.

**Ingurumen-baldintzek eragin bera al dute emakumeengan eta gizonengan?**

Ez, toxikoak izan daitezkeen produktuen gehiengo liposolublea baita, hau da, grasa-zelulak depositatu egiten dira. Emakumeek bizitza sortzeko gorputza prest dutenez, gizonenekoak baino koipe gehiago dute, hain zuzen ere %10 gehiago, eta beren gorputzek toxiko gehiago xurgatzen dute, intsektiziden kasuan gertatu den bezala. Lanaldietan pestizidekin kontaktuan egon diren emakumeak gizonenekoak baino kaltetuago suertatu dira, bai nekazaritzan, eta baita aurreneurri gisa intsektizidak erabili diren lekuetan ere. Emakume horiek sistema neurologikoan, endokrinoan

eta immunologikoan lesioak izan dituzte.

**Mundu mailako estatistikek emakumeak gizonak baino urte gehiago bizi direla diote, baina ba al dago urte horietako bizitza-kalitatea aztertzen duen ikerketarik?**

Emakumezkoak gizonenekoak baino zazpi edo hamar urte gehiago bizi dira, eta urte horietan bizitza-kalitatea okerragoa da. Bizitza-kalitatea duten bizitzak berdinak dira emakumeentzako eta gizonentzako. Horregatik gure lan- eta ikerketataldea CAPSeko (Osasun Analisien eta Programen Zentroko) Emakume, Osasun eta Bizitza Kalitatearen Programa izan da, eta gure ikerketak emakumeen bizitza-kalitatea okertu dezaketen patologiak aztertzerantz bideratu dira. ([www.caps.cat](http://www.caps.cat))

#### CARME VALLS-LLOBETEN ARGITALPEN GARRANTZITSUENAK

“Mujeres y hombres: Salud y diferencias”, Folio

“Vitamina D y Salud”, Grupo FAES

“Ante una edad difícil: psicología y biología de la adolescencia”, Círculo de Lectores

“Trastornos del ciclo menstrual influencia del stress, nutrición e insuficiencia luteínica en su etiopatogenia”, CAPS

“Polítiques per reduir les desigualtats en salut”, Editorial Mediterrània

“Mujeres invisibles”, Planeta

“Mujeres, salud y poder”, Cátedra Ediciones



\* <https://picasaweb.google.com>  
(Alardezaleak-en galeria)

## ALARDEZALEAK ELKARTEA

### Tradizioak ez du sexurik, eta bizirik irauten badu denbora berrietara egokitzen delako da

**Txaro Arribas, Maribel Castelló, Xabier Urresti eta Garoa Lekuona Alarde Publikoaren Alde Alardezaleak Elkarteko kide dira. Elkarte hori 1996. urtetik aurrera lanean dabil emakumeek berdintasunean parte har dezaten Irungo eta Hondarribiko Alardeetan. Aurten Emakundek elkarte horri Berdintasun Saria emango dio apirilaren 24ean. TESTUA: C. RUIZ DE GARIBAY; ARGAZKIAK: K. CORBELLA**

**B**este herrietan ez bezala, Irungo eta Hondarribiko alardeen kasuan gizarteak ez du modu naturalean onartu emakumeek herriko festetan eta ospakizunetan parte hartzea. Arazoak enkistatuta jarraitzen du 16 urteko aldarrikapenen ondoren. Bi udaletxeek –Irungoak PSEren eskuetan dagoenak eta Hondarribikoak EAJrean dagoenak– ez dute gatazka sozial hori konpontzen jakin edo ez dute konpondu nahi izan.

Txaro Arribas, Maribel Castelló eta Xabier Urrestik uneoro aurpegia eman dute, eta egoera hau normalizatzen saiatu dira lehenengo negoziaketak udal-korporazioekin eta Alardeko Batzordeekin hasi zirenetik, alegia 1996. urtea baino lehenagotik. Garoa Lekuona 1998an talde horretara pasatu zen bere amarekin; bere anaiak alarde mistoa txalotzeagatik jasandako mehatxuei eta irainei erantzuteko hartu zuen erabaki hori. Nerabezaroan Hondarribian egin zen inkesta batean “ezezkoa” eman zion emakumezkoek eta gizonezkoek berdintasunean parte

hartzeari buruzko galderari. Lauek airtortzen dute iraupen luzeko karrera bat dela, oraindik ez baitute helmuga ikusten. Baina ez dute inolaz ere biktimaren rola hartu nahi, eta alderdi positiboetan zentratzea nahiago dute, nahiz eta seinatzen jarraituko duten beraien aburuz egoera normalizatu ez izanaren arduradunak zeintzuk diren. Era berean, argi utzi nahi dute ibilbide luze honetan emakumeak ez direla bakarrik egon. “Gizonezko asko egon da eta dago gure alboan, eta eurek ere larrutik ordaindu dute jarrera hori. Ez gara, hasieran esaten zuten bezala, festa izorrazteko iritsi ginen gutxi batzuk. Argudio faltsu hori denboraren poderioz bertan behera geratu da. Herria ohartu da besterik gabe lehen mailako herritarrak bezala parte hartu nahi dugula, gizonezkoekin berdintasunean”.

**GIZARTEA ALDATU EGIN DA, ETA UDALETXEAK, ALDIZ, EZ** Positiboki aldatu dena da gizartearen amorrua gutxitu egin dela, baina badira egoskorkeriagatik bere horretan

dirauten hainbat gauza; horien artean, bi udaletxeen eta Alarde tradizionalak zuzentzen dituztenen jarrera. Azken horiek Alardea pribatizatu dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako epai bat ez betetze-ko. Epai horrek udaletxeak behartzen zituen Alardeetan emakumeen parte-hartzea bermatzera.

Xabik ondokoa dio: “Guk salatzen dugu jende-talde batek gizarte guztia- ren ondarea den herriko festa bat pribatizatu egin duela bi udaletxeen laguntzarekin”.

Txarok, Maribelek, Xabik eta Garoak pentsatzen dute bi udaletxeen aldetik borondate politikoa egongo balitz emakumeek gizonezkoekin berdintasunean parte hartuko luketela arazorik gabe. “Ziur gaude, bi herrietan gaur egun inkesta bat egingo balitz izenik eman gabe eta presiorik egin gabe, jende askok gure alde egingo lukeela. Herritarren gehiengoak festaz gozatu nahi du liskarrik eta tentsiorik gabe”.

Ongi ezagutzen dituzte 16 edo 17 urteko alabak babesteko alardean parte



**XABIER URRESTI:**

**«ASKOZ ERE ALAIAGOA DA, LIBREAGOA. NIK GIZON GUZTIEI ALARDE HAU PROBATZECO GONBIDAPENA LUZATZEN DIET, ETA EZAGUTU ONDOREN BEREN IRITZIA EMAN DEZATELA ETA AUKERA DEZATELA»**

hartzen uzten ez dieten familiak, beren burua arriskuan jarriko dutenaren beldurrez edo irainak jasango dituztenaren beldurrez. Maribelek gehitzen du beste Alardean badaudela emakumeekin desfilatzeko inongo eragozpenik ez duten gizonak. “Arazoa da publikoki iritzia ematea oso gogorra izan dela. Inolako azalpenik eman gabe alarde tradizionalan ateratzeari utzi dion gizonik bada. Ez dute alarde baten edo bestearen alde egin, ez dutelako astinduak izan nahi, baina ez dute alarde tradizionala babestu nahi, eta alde egin dute”.

Garoak egiaztatu du Hondarribian koadrilak ez direla jada puskatzen lehen bezala Alarde batekoak edo besteak izateagatik. “Iritzi ezberdinak ematen dira, eztabaidatzen da, baina laguntasunak dirau; ez dira lehen gertatzen ziren hausturak gertatzen. Herritarrak beldurra galtzen ari dira eta urte askotako lanaren ondorioz onarpen handiagoa dago”.

“Gutxiengo batek bere eskubideak aldarrikatzen dituen giza-gatazketan gertatzen dena zera da –dio Txarok–: instituzioek dagokien papera betetzen ez dutenean, hau da, gutxiengo horren eskubideak bermatzen ez ditutenean, hutsune hori sektorerik gogorrenak betetzen du. Kasu honetan, Alardeko Batzordeak. Gehiengoa duten partiduek kalkulagailua ateratzen dute, honekin botoak galduko dituztela pentsatzen dute, eta ez dute aurpegia ematen, nahiz eta gaur egun, gai horrek pisu eskasa duen hauteskunderi begira”.

“Hondarribiaren kasuan, Xabik dio, Jaizkibel konpainia mistoaren gaur egungo egoeraren erantzuleak Batzordea, Udaletxea eta Barne Saila direla; izan ere, azken horrek aldaketa bat agindu baitzuen ibilbidean eta kale batzuetatik pasatzea debekatu”.

Garoak informazio gehiago ematen du eta ondokoa gaineratzen du: “2007. etik iraunkorra zena orain hankaz gora jarri da. Badakite presioa egin ez gaitzak

lortzen dituztela, eta hori arriskutsua da. Galdera da ea norarte iritsiko diren, eta zeure buruari galdetzen diozu zertarako balio duen Berdintasun Legeak”.

Maribelentzat, arazoa enkistatu izanaren erantzukizuna “politika txarra” egin dutenena da, eta hauxe gaineratzen du: “Aukeratu duten bidea erosoena da. Ni gehiengoarekin. Baina ez dira oharitzen gizarte honetako liderrak direla, eta beraiek direla mezu positiboak eman behar dituztenak eta eboluzionatzen ez dutenei edo eboluzionatzen uzten ez dutenei arestian aipatutako hutsunea betetzen utzi behar ez dietenak. Guri egiten digutena beste arraza edo erlijio bateko pertsoneri egingo baliote, eskuak burura eramango genituzke bere burua hain aurrerakoitzat duen herri honetan. Baina egia borobila hauxe da: herri honetako emakumeen aldarrikapenak onartzeko ez gara inondik inora aurrerakoiak”.

### JAIK ETA PARTE-HARTZEA

Txarori galdetzen zaionean jai hauetan emakumeek kantineraren paperetik kanpo zergatik traba egiten duten, erantzuten du posible dela Irungo Alardeko Batzordeak emakumearen sarrerarekin gauzak aldatuko zirenean beldurra edo kezka eduki izana. “Eta beharbada arrazoi zuten. Alarde mistoa antolatzen dugun pertsonak saiitzen gara demokratikoa, maila hierarkiko gutxikoa, txandakako postuduna eta parte-hartzeari irekia izan dadila, eta, era berean, alaitasunean eta jai-giroan egin dadila. Ez dugu ahantzi behar festa bat dela, erritoxo betetako festa bat, baina azken finean, gozatzeko egun bat dela”.

Xabik bi alardeetan parte hartu du, eta hauxe dio. “Ni urte luzez atera nintzen Hondarribiko Alardean, emakumeak bakarrik kantinerak zirenean. Gizonak eta emakumez osaturiko Jaizkibel konpainia sortzea proposatu zenean ez nuen zalantza izpirik izan bertan parte hartzeko. Askoz ere alaiagoa da, libreagoa. Oso pozik nago nire neska-laguna-

rekin, nire lagunena alabekin eta emakume heldu eta gazteekin desfilatzeko aukera dudalako. Nik gizon guztiei Alarde hau probatzeko gonbidapena luzatzen diet, eta ezagutu ondoren beren iritzia eman dezatela eta aukera dezatela”.

“Betikoekin badugu parekotasunik –dio Maribelek– guk ere tradizioa eta festa maite baititugu, baina emakumeen parte hartzea aldarrikatzen dugu. Tradizioak ez du sexurik. Irauten badu garai berrietara egokitzen delako da”.

### SARI OSO BANATUA

Emakundek emandako saria bultzada bat izan da, batez ere erakundeen aldetik errekonozimendua suposatuz duelako, eta horren bila ibili direlako hain zuzen ere lan luze eta deseroso honetan murgildu zirenetik. “Sari guztiek dute beren alde sinbolikoa, baina sari honek mezu garrantzitsu bat helarazten dio gure gizarteari: balio gehiago ematen digu hemen gauden emakumei baita sostengatzen gaituzten gizoni ere. Errekonozimendu hau beharrezkoa, nahitaezkoa eta garrantzitsua zen guretzat. Bi udalekin zer ikusia ez duen erakunde bat etortzea eta gu onartzea bultzada garrantzitsua izan da. Sari hau jende askorena da, horien artean daude: pausoa ematera ausartu den jendea, ausartu ez den jendea nahiz eta gogoia izan, espaloitxalotua gaituen jendea, hamasei urte hauetan eta egun batez ere sostengatu gaituen jendea”.

Garoaren ustez saria oso egokia da Hondarribin datorren urtean gerta daitekeenaren aurrean animoak ematen baitizkie, eta sinbologiari ere garrantzia ematen dio, horregatik ondokoa esanez bukatzen du “saririk onena ez negoziatzea izango litzateke, eta Alardean ateratzeko baimenik ez eskatzea; hain zuzen ere Alardean parte hartu nahi duen Hondarribiko emakume orok Jaizkibelen edo edozein konpainian parte hartu ahal izatea”.

“Sari guztiek zerbait sinbolikoa dute, baina kasu honetan bizi dugun gizarteari oso mezu garrantzitsua ematen dio: hemen gauden emakumei adre gehiago ematen digu, hala nola babesten gaituzten gizoni ere. Esker on hau beharrezkoa genuen, ezinbestekoa da, eta oso garrantzitsua. Bi udalerrietatik at dagoen erakunde bat etortzea eta bere esker ona adieraztea indar handia ematen digu. Jende askori dagokion saria da: pausua ematera ausartu zena, ausartu ez zena baina gustatu izango litzaikeena, espaloitxalotua gaituena, hamasei urte hauek jasan dituen eta egun batez jasan duena ere”.

Garoarentzako saria oso aproposa da, batez ere, datorren urtean Hondarribin zer gertatuko den ez dakitelako oraindik, sinbolikoa iruditzen zaie eta zera diote, “saririk hoberena negoziatu behar ez izatea izango litzateke, ezta baimenik eskatu behar izatea Alardean ateratzeko, Hondarribiko edozein emakumek Jaizkibel edota edozein konpainian ateratzeko eskubidea izan dezan”.



## 2012KO BERDINTASUNERAKO FOROAK EKONOMIA-ARLOA HARTU DU ARDATZ NAGUSITZAT

2012ko Gizon-emakumeen berdintasunerako IX. Foroa, maiatzaren 7tik 27ra ospatuko da Euskal Herriko hainbat hiri eta herrietan. Foro horren ardatz nagusia: "Ekonomia- rloko berdintasun-espertiak" izango dira. Urteroko topaketa hori, 2004ean sortu zen emakumeek instituzioetan, kolektiboetan, eta gizon-emakumeen berdintasunaren aldeko erakundeetan egiten duten lana, agerian jarri, bildu, eta indartzeko. Bederatzigarren Foroan, emakumeen botere-tzearekin eta balioen aldaketekin lotutako gaiak azpimarratuko dituzte. Hala nola: emakumeen enplegurako sarbidea eta baldintzak hobetzea, gizarte-baliabideak eskuragarriago egitea, edo emakumeei eragin- esparruetara sarbidea erraztea. Antolatuko dituzten hainbat jardueratan, zenbait gaien inguruan gogoeta egingo dute. Esate baterako: Berdintasun-legea ekonomia-eremuan eraginkorragoa izateko arategiak nola garatu, edo ekonomia-aren gestio eta antolaketak eredu arduratsu, bidezko, eta partitarioagoa nola gauzatu. Berdintasun-plan eta neurrien ondorio ekonomikoei buruz, eta zuzendaritza-postuetan emakumeek duten presentziari buruz ere hausnartuko dute besteak beste. Programa eskuragarri dago Emakunderen web-orrian.



## EMAKUNDEK KRISITIK ATERATZEKO BERDINTASUNA ERABILTZE APROPOSATZEN DU

"Eskubide bat eta krisitik ateratzeko neurri bat: Landu berdintasuna", horixe izan zen Emakundek martxoaren 8rako, Emakumeen Nazioarteko Egunerako, aukeratu zuen leloa, emakumeen enplegarritasunean zentratu zena. Ideia orokorra berdintasun- politikak krisi ekonomikoaren testuinguruarekin zentzu positiboan lotzea izan zen. Eman nahi zen mezua hau da: berdintasun-politikak eredu sozioekonomiko eta produkzio-ehun berri bat, gizarte honi krisitik ateratzeko lagunduko diona, definitzen lagun dezake. Emakundeko zuzendariak, María Silvestrek, hau azpimarratu zuen: "Talentu femeninoa aprobetxatu behar dugu, bere ezagutza,



bere esperientzia, bere ikasketak. Emakumeen enplegarritasunean eragiten duten neurriak sustatu behar ditugu emakumeen aktibitate-tasa eta lan-tasa igo dadin, hori gizartearen onurakoa izango baita". María Silvestrek gure gizarte zahartuek pertsonen zaintza eskatuko dutela azpimarratu zuen, eta bere ustez, "hori ezin daiteke emakumeen eskuetan soilik geratu eremu pribatuan, erantzunkidetasuna bere gain hartu behar dute erakundeek, merkatuak eta pertsonak. Zaintzaren gestio on batek emakume askoren lanbidea aintzat hartzea dakar eta ekoizpen-sektorearen alde eta enplegu-sorkuntzaren alde apustu egitea. Emakundeko zuzendariak ondokoa aipatu zuen: "Enpresek berdintasun-neurriak ezartzearen aldeko apustu serioa egiten dutenean, justizia sozialarekin konprometitzeaz gain, beren langileekin ere konprometitzen dira, eta horrek langileen asetze-maila hobetzen du, talentuak atxikitzen ditu, adiskidetzea eta erantzunkidetasuna errazten ditu eta produktibitatea gehitzen du". María Silvestrek eta idazkari orokorra den Arantxa Elizondok, martxoaren 8a Martuteneko espetxean preso dauden emakumeei bisita egingez ospatu zuten. Emakundeko zuzendaritza presondegiara gonbidatua izan zen Emakunde Ausartak taldearen "Emprendemos el vuelo" antzezlanean eszenaratzea eta ondoren, presoekin elkartu zen. Bisitaren ondoren, Emakundeko zuzendaria eta idazkari nagusia, Emakumeen Nazioarteko Eguna zela eta Donostian ospatu zen manifestazioan parte hartu zuten.

## EAEN BERDINTASUNAREN EREMUKO ORDENANTZA MARKOARI BURUZKO JARDUERA

Martxoaren 30ean, Euskal Autonomi Erkidegoan emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaren eremuko Ordenantza markoari buruzko jarduera bat ospatuko da Bilbon. Jarduera, EUDELeko lehendakaria den Ibone Bengoetxeak, Emakundeko zuzendaria den María Silvestrek eta Genero-Indarkeriako Biktimei Arretaren zuzendaria den Mariola Serranok irekiko dute. Testuinguru honetan, emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako Ordenan-

tza bat sortzeko gida bat aurkeztuko da, euskal udalek elkarren antzeko irizpideetan oinarritzen den Berdintasuneko Ordenantza egiteko tresna bezala erabiltzeko. Jardueran, testuaren edukia azalduko da eta aurrera eramateko aholkua eskainiko zaie euskal herrietako Berdintasun Politiken arduradunei. Berdintasun osatzen duten erakundeek, Ordenantza honen lantze prozesua, emakume eta gizonen arteko Berdintasunaren bilaketan gogoeta-espazioak irekitzeko aukera bat izatea nahi dute, hala nola, hiritar parte-hartzeari atea irekitzeko aukera. Eudel, Emakunde eta Genero-Indarkeria-Biktimentzako Arreta Zuzendaritza proiektu honetan hasi ziren lanean udal ezberdinen eskariengatik.

## EMAKUMEEN KONTRATAZIORAKO LAGUNTZA GIDAK

Emakunde-k "Emakumeen enplegua bultzatzeko dirulaguntzak eta kontratazio modalitateen gida" berria aurkeztu du. Argitalpenaren helburua meritu eta ahalmen berdineko emakumeen kontratazioa sustatzea da, indarrean dagoen araudi juridikoaren arabera. Dirulaguntzetaz aparte, kontratazio modalitate ezberdinak aurkitu daitezke gidan, emakumeen kontratazioa soilik sustatzen duten informazioa ematera ez dela mugatzen. Gida, kontratazio-moten arabera egituratuta dago eta kontratatu daitezken pertsonen baldintzen arabera, enpresaren baldintzen arabera, kontratuaren ezaugarrien arabera eta sustagarrien, formalizazioaren, araudiaren eta beste ezaugarri batzuen arabera azpiegituratu.



## GIZONDUZ 2012 PRESTAKUNTZA IKASTAROAK ABIAN DAUDE

Gizonduz ekimenaren barne dagoen Sentsibilizazio eta Heziketako 2012ko Programarako izen emate epea ireki da. Bai internetekoak bai presentzialak diren ikastaroak, urte osoan zehar luzatuko dira. Doakoak dira eta era askotakoak, programatutako ikastaroak egin daitezke edota norberak programatutakoak. 2009. urtean sortu zirenetik, 2.584 gizon eta 2.182 emakumek parte hartu dute Gizonduz Sentsibilizazio eta Heziketako Programa honetan.

Aldizkariaren edizio digitalean, eduki gehiago: [www.emakunde.euskadi.net/revista](http://www.emakunde.euskadi.net/revista)

- Enpresa pribatu edo herri erakundeek berdintasunaren alde burututako ekimenak.
- Jarduera interesgarrien agenda.
- Beste emakumekin konektatzeko atala.
- Iritzia emateko lekua.

Edizioa: Emakunde. Koordinazio teknikoa: Kazeta 5. Diseinua: Didart. Inprimaketa: EPS. Lege Gordailua: VI 465-2010